

Masa hedabideen eragina arlo intelektualean: figura intelektual berrien sorrera dela eta

Ane Larrinaga Renteria
EHUko irakaslea

Lan intelektualak badu kultur ekoizpenari loturiko dimentsio bat, eta komunikazioari, hau da, eragin politikoari, dagokion bigarren bat ere bai. Azken hau aintzat hartuta, masa hedabideetan burutu den intelektualen integrazioak arlo intelektualaren barne egituran eragin duen moldaketa aztertu gura da artikuluan, moldaketa horrek kultur produkzioaren beraren nolakotasuna eta autonomia erltxo erabat baldintzatzen dituelakoan.

Intellectual work holds a first dimension related to cultural production, and a second linked to communication, that is to say, to political influence. Taking this latter dimension into consideration, the aim of the article is to analyse the recomposition that has been brought about in the internal structure of the intellectual field by the integration of the intellectuals into the means of mass diffusion, starting from the fact that this remodelling conditions the nature and relative autonomy of cultural production.

1. Sarrera

Intelektualak gizartean zer funtzio duen eta funtzio hori nork betetzen duen zehaztea izaten da intelektualei buruzko gogoeta teorikoetan behin eta berriro aurkitu ohi dugun ariketa saihestezina. Lipset-ek eskaintzen duen definizio ezagunaren arabera intelektualak «kultura, hau da, gizakiaren mundu sinbolikoa, sortu, hedatu eta aplikatzen duten guztiak dira», kategoria horretan bereizten dituelarik maila bi: alde batetik, kultura sortzaileek osatzen duten oinarritzko nukleoa eta, bestetik, kultura banatzaileen taldea (Lipset, 1987: 272). Nukleo/periferia binomioaren irudikapena era berdintsuan erabiliz, antzeko proposamenetatik abiatzen dira beste autore batzuk ere, hala nola E. Shils —intelektualak goi mailako kulturaren produzitzaile eta erreproduzitzaileak ditugu, bere ustez—, edota R. Aron, nork hiru zirkulu zentrokidetan kokatzen dituen tipo ideal desberdinak: sortzaileen muina erdigunean eta dibulgatzaile xumeak kanpoaldeko muga lausoan (Shils, 1977: 145 eta Aron, 1979: 204).

Klasikotzat jo daitezkeen definizio hauetan intelektualaren dimentsio kognitiboa eta kulturala azpimarratzen da batik bat, kultur produkzioaren arloko agente gisa aurkezten baitzaigu bera beste alderdi batzuen gainetik. Badago egon, ordea, intelektualaren nozioak berezkoa duen bigarren dimentsio esanguratsua: dimentsio komunikatiboa izenda dezakeguna (Berrio eta Saperas, 1993: 153-154), eta haren izaera publikoa agerian uzten duena. Honetara, pentsalari publikoa litzateke intelektuala (Lamo de Espinosa, 1996: 199). E. Said-en ustean ere, gizartean paper publiko espezifiko duen gizabanakoa da intelektuala, publiko batentzat mezu, ikuspegia, jarrera, filosofia edo iritzia errepresentatu, irudikatu eta taxutzeko gaitasuna duena (Said, 1996: 29). Izan ere, jarduera intelektualaren garapenak nahitaezko baldintzat dituzte entzulego edo publikoaren existentzia, eta harekiko kontaktua edo komunikazio motaren bat izatea (Coser, 1968: 19). Bigarren izari honek, pentsamenduaren komunikazioarenak hain zuzen ere, iragartzen du intelektualaren zereginak baduela, beti zuzenean ez bada ere, zeharka bederen, kutsu politiko erabatekoa. Izatez, politika publikoki hitz egiteko eskubidea nork duen, eta noren izenean, erabakitzen duen borroka da (Champagne, 1990: 252).

Intelektualaren zeregin politikoak, hala ere, kultur produkzio esparru autonomo baten erabateko garapenaren baldintza eskatzen du ezinbestean. Gizarte modernoan agertzen den arlo intelektual-kulturalaren sendotzeak baino ez du ahalbidetzen arlo horretan nagusitzen diren baloreak eta arauak, independentzia eta zuzentasuna, besteak beste, esparru politikoan ere aplikatzea.

El intelectual se constituye como tal al intervenir en el campo político en el nombre de la autonomía y de los valores específicos de un campo de producción cultural que ha alcanzado un elevado nivel de independencia con respecto a los poderes (y no, como el hombre político que dispone de un importante capital cultural, basado en una autoridad propiamente política, adquirida a costa de una renuncia a la carrera y a los valores intelectuales). Encerrado en su mundo, adosado a sus propios valores de libertad, de desapego, de justicia, que excluyen que pueda abdicar de su autoridad y de su responsabilidad específicas a cambio de unos beneficios o de unos poderes temporales necesariamente devaluados, se afirma, en contra de las leyes específicas de la política, de las de la Realpolitik y de la razón de Estado, como el

defensor de unos principios universales que no son más que el producto de la universalización de los principios específicos de su propio universo (Bourdieu, 1995: 197-198).

Honela, definizioz esparru autonomoak diren kultura eta politika, bateratu eta uztartu egiten dira intelektualaren figuraren baitan. Mundu sozialaren irudikapenen produkzioa borroka politikoaren dimentsioa izanik, intelektual izatea, hots, eskuratutako kapital intelektualari esker munduaz pentsatzen uzten diguten pentsamendu kategoriak produzitzeko gaitasuna izatea edo mundu sozialari buruzko diskurtsoa sortzeko ahalmena edukitzea, ez da inplikazio politikorik gabeko zeregina. Azken finean, sistema sinbolikoak ezagutza tresnak dira, baina baita menperatzeko baliabideak ere, integrazio kognitiboaren eragile gisa ordena arbitrario baten integrazio soziala bultzatzen baitute euren logikaz (Bourdieu, 1992: 21).

Ez dira, hortaz, heziketa maila edo kultur eta pentsamendu sormena intelektuala ezaugarritzen duten zeinu bereizgarriak —intelektualak ez diren beste askok ere partekatzen dituzte ezaugarri horiek eta—, pentsamenduaren bitartez besteen gain eragina izateko proiektuari lotuta agertzen diren beste elementu batzuk baizik. Eta eragin egitasmoak, proiektu moralak izaten dira edo, beste hitz batzuetan esanda, politikoak. Eragin-gizakia, gogorarazten digu R. Debray-k, akzio-gizakiaren motako espezie bat da. Eta bere biolentzia sinbolikoaren erabilera, biolentzia fisikoaren ordezkoa, hori baino ez. Horra hor, eragin proiektu ororen izatea. Debray-ren ele arrandiatsuetan, gerra garaian gizakiaren egintza gizakiaren gain gatazka fisikoan gauzatzen den era berean, bake garaian eragin hori “limurtzea”, “prestigioa” eta “autoritatea” bide direla burutzen da, norgehiagoka intelektualaren alorrean (Debray, 1979: 148).

Hartara, egintzarako eragitea —ezagutza erabiliz, pentsamendua sortuz, munduaren errepresentazioak eratuz eta berauek ezagutzera emanez—, horixe da intelektualari azterketa teoriko gehienetan egotzen zaion funtzio nagusia. Funtsean, intelektualei buruzko azterketok Platonen garaitik pentsamenduaren historian etengabe agertu den gaiaren hausnarketa eraberritua ekartzen digute gogora: ezagutza eta boterearen arteko uztarduraren nondik norakoa, pentsamenduaren eta egintzaren artekoa, teoria eta praktikaren artekoa, edota, materialismo historikoaren terminoetan, egitura eta gainegituraren artekoa. Intelektuala baita kultura eta politikaren arloetan jarduten duen agente soziala, bietatik jasotzen dituen aginduak, Weberrek aspaldi iragarri zuenez, kontraesankorrak badira ere. Aldi berean Jainkoaren eta Zesarren menpeko, arrazoi abstraktuaren defen-datzaile zein gizakien hirian parte hartzaile, intelektualaren kategoriak bere-berea du anbiguotasunaren ezaugarria.

Horiek horrela, intelektualaren esparrua honako hiru zedarriek mugatuta ikusiko dugu: kultura, politika eta publikotasunak. Kulturaren nortasunak emandako nortasunean finkaturik, intelektualak parte hartzen du politikan era publiko eta manifestu batez (Lopez Adan, 2001: 55). Izan ere, dituen baliabide kulturalak eta prestigioak balio sinbolikoa hartzean eremu publikoan —kapital kulturala kapital sinboliko legez erabiltzean, Bourdieu-ren kontzeptuen arabera— lor dezake eraginkortasuna arlo politikoan (Bourdieu, 1999: 319). Eremu publikoa litzateke, beraz, arlo kulturalaren eta politikoaren arteko zubia eraikitzen deneko esparrua. Hori dela eta, esparru horrek duen egitura eta, batez ere sarbideari begira,

agertzen duen irekitasun edo hertsiera maila, ez dira nolanhiko zehaztasunak kultur ekoizle izan eta eragin ekoizle gisa jarduteko asmoa duenarentzat. Aitzitik, intelektualaren presentzia soziala, are gehiago esango genuke, intelektualaren existentzia bera, unean uneko eta tokian tokiko publizitate forma sozialei hertsiki loturik egon dela eta dagoela baieztatu genezake. Labur esanda, intelektualaren kategoria sozialaren bilakaera esparru publikoaren eraketarekin elkarturik azaltzen zaigu guztiz; era honetan, produkzio intelektualak, definizioz behintzat autonomia duen arren, publikoarengana iristeko gaur gizarte burgesa eta kapitalismo garatuan berezkoak diren publizitate baliabideen bitartekaritzaren premia du (Berrio eta Saperas, 1993: 155).

Esparru publikoaren irudikapena

Egia da garai guztietan izan direla apaiz, jakintsu, *philosophe* edo idazle izenez ezagututako gizakiak, gaur egungo intelektualen kategoriarekin identifika ditzakegunak. Zergatik sortu diren ulertzea gauza erraza da. Izan ere, N. Bobbio-k dioen legez, botere ekonomiko eta politikoarekin batera botere ideologikoa gizarte orotan garatu izan da beti¹. Halere, tradizio intelektual modernoaren hastapenetan arakatuz, nabarmenki ikusten dugu tradizio horren garapenari bidea zabaltzen dioten faktore eragileen artean, esparru publiko burgesaren eraketa dela garrantzitsuenetakoa. Bat gatoz, horrela, intelektuala esparru publikoaren eraketaren eta iraupenaren menpe dagoela mantentzen duen iritziarekin (Eyerman, 1994: 32).

Espazio publikoari buruzko gogoetak dakarzkigun arazoaren artean, ez da txikiena publiko/pribatu dikotomiaren zehaztapenari dagokiona. Esparru bi hauei, analitikoki bereizten diren unetik, egozten zaizkie esanahi kontrajarriak, beti bat ez datozenak, eta dikotomiari atxikirik agertzen direnak: lehen zentzu batean, adibidez, gizabanakoaren kontzeptuari esparru publikoaren izaera kolektiboa kontrajartzen zaio; bigarren batean, esparru pribatuari dagokion itxierari irekitasunaren ideia —hots, sarbidea duen espazioarena— jartzen zaio aurrean; hirugarren zentzuan, espazio pribatuan sekretua, ezkutukoa edo begiradari ostua den guztitik urruntzen diren agerikotasuna, gardentasuna edo ikusgaitasuna bezalako ezaugarriak nagusitzen dira espazio publikoan (Rabotnikof, 1997: 136).

Nabari denez, esparru publikoaren errepresentazio zabalduenetakoa ikusgaitasunaren metaforan oinarritzen dena da, ideia hau erabiltzen delarik behin eta berriro metafora espaziala osatzeko eta ezaugarritzeko. Berbarako, publikoa dena, publikoaren eskura dagoena da, ikusgai edo behagai dena, ikusleen aurrean burutzen dena, denei edo askori erakusten zaiena ikusia edo entzuna izan dadin, horren berri egon dadin (Thompson, 1998: 166). Bizitza publikoak publizitatea, irekitasuna eta ikuskapena eskatzen ditu, baita agerpena eta arriskurako gaitasuna ere (Béjar, 2000: 26).

1. N. Bobbio-ren iritziz, intelektualaren kategoria beti existitu izan da gizarte guztietan, izen desberdinekin ezagutu izan bada ere (ikus Bobbio, 1998: 16-17). Artikulu honetan mantentzen dugun argudio lerroa, haatik, ez dator bat ideia honekin. Gure ustez, intelektualaren kategoria modernitatearekin batera azaleratzen da, ez lehenago. Azaleratze hau kultur produkzioaren arlo autonomoaren sorrera eta garapenaren testuinguruan ulertu behar da, eta esparru publiko zein publizitate molde modernoaren bilakaerari loturik.

Goian aipatutako publikotasunaren ezaugarri idealak, zuzenbidezko estatua eta gizarte zibil burgesaren urrezko aroarekin identifikatzen den “esparru publiko autonomoan” kokatzen ditu Habermas-ek. Deliberazio eta kontrol politikoa xedetzat duen esparru publiko eta autonomoa, partizipazio berdintasunaren baldintzetan arrazionalki argudiatzeko gaitasuna duten gizabanakoz osatua, modernitatearen proiektuaren bereizgarrietako bat da bere usteen. Esparru publiko burgesaren sorrera estatuaren aurrean bereizturik azaleratzen den gizarte zibilaren eraketari loturik burutzen da, lehenagoko botere feudalen desintegrazio eta polarizazioaren ondorio gisa agertzen delarik. Habermas-ek berreraikitzen duen eremu publiko-politikoak, eremu publiko-literariotik eratorritakoa da eta jatorriz familia burges nuklearraren baitan ezarritako komunikazio librearen printzipioa hartzen du ezinbesteko abiapuntutzat. Horren kariatara, prentsa, elkarte eskubidea, iritzia eta antzeko ahalmenak, publikoaren eta publizitatearen beharrezko tresnak bihurtzen dira (Habermas, 1981).

Alta, honela definituriko esparru publikoaren posibilitate baldintzen eraldaketak haren gainbeherakada eragiten du. Habermas-en esanetan, estatuaren eta gizarte zibilaren arteko mugen deusezteak, aginte politikoaren hedapena lehenago pribatuak kontsideratzen ziren eremuetara, publikoaren bilakaera —“publiko bezeroaren” garapena— eta, batez ere, esparru publiko-literarioaren desagertzea masa-kulturaren mesedetan, publizitatearen baldintzak erro-errotik iraultzen dituzten prozesuak dira.

Honenbestez, espazio publiko ilustratuak, masa-gizartearen espazio publikoari uzten dio lekua, hau da, informazio-espazio publikoari (Monzón, 1996: 261, 315)². Behinolako foro, merkatu, plaza, parlamentu, kafetegi, saloi, ateneo, akademia zein lagun gutxiren artean argitara emandako egunkariaren orde, masa-hedabideen gunea da orain mezu trukea eta iritzia bideratzeko esparru, gizartearen errepresentazioen erreferentzi marko berria.

Ondorioz, publizitatearen hertsadurak, bereziki hurbilerraztasun eta ikusgaitasunari dagozkionak, areagotu egiten dira publikotasunerako sarbidea zailduz. Thompson-ek egokiro adierazten duen legez, komunikabideak garatu ahala, publizitatearen fenomenoak partekatutako leku batean burutu daitekeen elkarrizketatik aldenduz joan da apurka-apurka. Publiko dena, gune des-espazializatu eta ez-dialogiko bihurtuz joan da eta, gero eta gehiago, media bitartez ekoiztutako ikusgaitasun bereizgarriari erantsirik geratu da (Thompson, 1998: 177). Izan ere, elkarrizketa eta debata bezalako kontzeptuak egokiak izan zitezkeen XVIII. mendeko saloietan egiten ziren elkartruke kulturalak izendatzeko, baina, gehienez ere, metafora zehaztugabeak baino ez dira gaurko masa-hedabideen deskripzioa egiteko orduan (Price, 1994: 105).

Bestalde, masa kontzeptuaren erabilerak erakusten digunez, erakunde mediatikoen hedapen hutsa baino gora behera handiagoko aldaketa sozialak antzematen dira azken mende eta Erdiko gizarte egituran. Esparru publiko klasikoan

2. Egia esan, esparru publiko ilustratua, Habermas-ek deskribatzen duen eran, ez da sekula existitu izan, eraikuntza ideal gisa ulertu behar da. Eraikuntza horretan ez dira aintzat hartzen esfera publiko-politikorako sarbidea bermatzeko bete behar diren baldintza sozialak. Kritika honetan sakontzeko, ikus daiteke Bourdieu, 1999: 90-92.

ziharduten gizaki jakintsu eta ilustratuen ondoan, bizitza sozial eta politikoaren protagonismoa eskuratzen duten gehiengo zabal eta heziketa gutxikoak aurkitzen ditugu “masa-gizartearen” eszenatoki berrian. Kultura —definizioz— jasoa zenak, masa-hedabideei eta merkatuari lotutako kulturaren lehiakidetasuna izango du aurrerantzean. Izan ere orain, gizarte konplexuetan kultur produktuak deritzetenak, informazioa eta ondasun sinbolikoak alegia, hein handi batean, teknologia berriek eskaintzen dituzten euskarrietan dabilta hara-hona merkantzia gisa; areago, era industrialean ekoiztuak eta bilduak dira, hedabideen bitartez banatuak marketin teknikak erabiliz, azkenik, audientzia edo publiko hedatuek kontsumitzen dituztelarik testuinguru heterogeneoetan. Nabari denez, gizartearen estratifikazio eta birproduktio kulturalari dagozkion auzi korapilatsuak gurutzatzen dira prozesuotan, menerapen eta menpekotasun harremanak barne.

Ez da harrizkeoa, esanak esan, intelektual “klasikoak”, aldaketa hauen dimentsioa ikusita, zurturik geratzea eta euren ezinegona adieraztea. Batik bat, gizarte burges murriztuan kultura jasorearen eroale, iritzi arrazoituaren ekoizle eta gustu onaren hezitzaile eta arbitro izan direnentzat, masa-hedabideek zabaltzen duten (sasi)kulturak, euren rol tradizionala zentzuz hustuz, deslegitimazio arriskua ekar lezakeelako. Bereizketa sozialaren printzipioak agintzen duenez, ondasun edo praktika sozial baten hedapena burutzen denean, kultur errekursoena esaterako, ondasun horren banaketa egitura aldatuz, beronen singularitasuna eta balio bereizgarria gutxituz joaten dira. Prozesu honek lehengo jabeen bereiztasuna eta nortasun soziala mehatxatzen ditu, jakina (Bourdieu, 1998: 226-227)³. Beldur honetan, besteak beste, sustraituko litzateke U. Eco-k aspaldi jarrera “apokaliptiko” bezala bataiatu zuen masa-kulturaren azterketa lerroa, non iritzi “aristokratikoaren” aztar-na nabarmenak aurkitzen diren sarri⁴.

3. Kultur ekoizlearen kokapen sozialetik ondorioztatzen den jarrera anbiguoaren adibide da kulturaren banaketa sozial “berdintzaileagoaren” aurrean intelektualak agertzen duen jokaera. Bourdieu-k honela adierazten du : «Se comprende que, divididos entre el interés por el proselitismo cultural, esto es, por la conquista del mercado mediante la auto-divulgación que les inclina a las empresas de vulgarización, y la ansiedad de su distinción cultural, única base objetiva de su singularidad, los intelectuales y los artistas mantengan con todo lo que toca a la “democratización de la cultura” una relación de extrema ambivalencia que se manifiesta, por ejemplo, en un discurso doble, o, mejor, desdoblado sobre las relaciones entre las instituciones de difusión cultural y el público» (Bourdieu, 1998 : 226-227).

4. Dena den, U. Eco-k hain ezagun egin zuen apokaliptiko/integratu binomioa sinpleegia begitanzten zaigu masa-kultura eta masa-hedabideen aurrean sortutako azterketa eta gogoeta teorikoak sailkatzeko irizpide gisa. Zentzu honetan, zaila da esatea masa-kulturaren azterketa kritiko asko noiz iristen den jarrera elitista edo ikuskera apokaliptikoen gehiegikerietan murgiltzera (masa-kulturaren ezaugarriak eta beronek jasandako kritika “elitistak” erreparatzeko ikus daitezke U. Eco, 1975; S. Giner, 1979 eta A. Ariño, 1997). Bestalde, intelektualek agertu duten egonezina masa-komunikazio eta, oro har, masa-fenomenoen aurrean etengabeko errealitatea izan da XX. mendeko 30eko hamarkadatik honantz. Adorno eta Horkheimer-en *Dialéctica de la Ilustración* obra klasikoan, adibidez, industria kulturalaren aurkako alegatuaren lehen arrastoak aurki ditzakegu. Azken aldi honetan, oihartzun handia izan dute zientzia politikoaren eta soziologiaren eremuan telebistaren eraginaren inguruan egindako zenbait azterketa kritikok ere (ikus Bourdieu, 1997c eta Sartori, 1998). Gure artean, hedabide eta komunikazio teknologia berriekiko intelektualen jarrera elitista agerian uzten duen saiakerarik ere badago (ikus Aranberri, 1997).

Identitateak krisian, identitateak berreraikitzen

Jarrera aristokratikoa izan edo ez, ezin uka, XIX eta XX. mende hasieratik aurrera, masa-hedabideen goraldiarekin batera —zer esanik ez azken aldi honetako hedabide elektronikoenarekin—, kulturaren produkzio eta hedapen prozesuak lehengo agenteen kontroletik kanpo geratzen direnik. Gainera, alfabetatzearen eta oinarrizko hezkuntzaren hedapenak, eta ondoren publiko irakurlea zabaltzeak posibilitate komertzial berriak irekitzen dituzte, baita bideak zabaldu ere literatur forma herritarrei (egunkariari eta astekariari). Honela, joan den mendetik aurrera, tirada handiko egunkaria, baita kazetariaren figura ere, berrorientazio puntu bilakatzeko dira intelektual aristokratentzat, masa-hedabideek egituratzen duten esparru publikoan eta hedabideek baldintzatzen duten ikusgaitasun sozialaren alorrean.

Intelektualak, kultur ekoizle baina, aldi berean, eragin agente ere izanik, komunikazioa —eragina, zuzenago esanda— du beharrezko, publikoarengana iritsi gura badu. Bere nagusitasuna edo autoritatea komunikazio prozesu honen nolokotasunean oinarritzen da. Bere posizio koordinatuak —hezkuntza, jatorri soziala, metaturiko kapitala kulturala, arlo intelektualean duen kokapen objektiboa eta honi dagozkion prestigioa eta boterea— funtsezkoak dira komunikazio egintzaren egitura objektiboa ezartzerakoan, hizkuntz truke oro kultur errekurtsoen banaketa ezberdinean oinarrituta dagoen botere egintza delako, birtualki behintzat. Baina, ez dira garrantzi gutxiagokoak komunikazio egintza burutzeko dituen tresnen gertutasuna eta dispozizioa. Zentzu horretan, komunikazio prozesua bera eta komunikatzeko dituen baliabideak, intelektualaren identitate indibidual zein kolektiboaren alderdi eratzaileak dira (Eyerman, 1994: 58). Komunikazio horren forma eta edukietan gerta daitekeen edozein aldaketak, hortaz, erasan egiten dio intelektualaren identitateari, krisi zentzua sortuz. Azken mendeetako gorabehera aniztasuna dela medio, krisi prozesu hau belaunaldi intelektual desberdinen baitan eta testuinguru historiko diferenteetan bizi izan da etengabe.

Honetara, masa, masa-kultura edo masa-hedabide bezalako kontzeptuek zerikusia dute intelektualek publikoarekin harremana lortzeko dituzten baliabideekin eta, maila honetan, bitartekaritza errekurtsu eta prozesuen aldaketatik sortzen den krisi zentzua islatzen dute; intelektualek, egiturazko baldintza historiko desberdinen eraginaren arabera euren rola berdefinitzeko ekin behar diote eta kategoria sozial gisa duten nortasun kolektiboa berreraikitzeari.

Honek guztiak esan gura du testuinguru sozial eta kultural aldakorretan diharduen kategoria soziala osatzen dutela intelektualek. Bestela badirudi ere, praktika intelektuala sozialki kokatuta egoten da beti eta ez da aldeztu aurretik ezarritako kualitate aldagaitz batean oinarritzen. Egon ez dago “berezko” intelektualik, izatezko gaitasun baten ondorioz existitzen denik. Intelektuala hobeto uler daiteke azaleratu egiten den kategoria gisa, ezaugarri finko eta egonkorretan irauten duena baino (gizabanakoen zein egitura sozialen nolokotasuna adierazi ezaugarri horiek). Kategoria sozial honen etengabeko berreraikuntza historikoaren aurrean, saihestu egin behar da, behingo, betiereko intelektualaren mitoa, intelektualitate esentzial eta denborazkanpokoaren existentziaren ideia, zenbaitetan intelektualek beraiek euren uestezko dohainaren nagusitasuna adierazteko elikatutako autoirudia (Bourdieu, 1983: 11; 2000: 70; Schlesinger, 1987: 19; Eyerman, 1994: 97).

Aldaketa sozialek, hortaz, intelektualari buruz daukagun ulerkuntzari eragiten diote, baita paperaren beraren forma eta edukiei ere. Honenbestez, lan intelektualari zabaldutako testuinguru berrietan “intelektualak” zelan jardun beharko lukeen aztertzen da gaur egungo eztabaida teoriko gehienetan, bai estatuan edo alderdi politikoaren baitan, bai unibertsitatean zein hedabideetan edota merkatu komertzialean. Intelektualak “krisian” omen daude; egoeraren hautemate hori, ordea, une orotan antzerakoa izan delakoan gaude gu, lehen eta orain, modernitatean eta beranduko modernitatean. Eztabaida horiek —hemen ondoko lerroetan aipatuko ditugun batzuk barne—, intelektualaren aldaketa “krisiaren betaurrekoekin” interpretatzen dutenak, intelektualaren kokapen aldakorren eta bere berdefinizio krisiaren proiektzioak dira. Hala ere, aipatu eztabaidotan aurkitzen dugun elementu batek areagotu egiten du kontzeptuaren inguruko nahasketa: N. Bobbio-k gogorarazten duenez, badago intelektualei buruzko diskurtsoan izanaren eta izan beharraren artean bereizteko gaitasun eza (Bobbio, 1998: 19). Intelektualaren definizioa, neurri batean, autodefinizioa izaten da. Hartara, maila deskribatzailea preskripzioarekin nahastuz eta analisiaren unea proposamenaren unearekin lotuz, intelektualak saiatzeko dira —euren ustetan— benetako intelektualak zer diren eta nortzuk diren zehazten: batzuen iritziz, aldaketa sozialarekiko konpromiso politiko ageriaren arabera definituko da intelektualak; besteen ustez, aldiz, kultur produkzioaren autonomian datza intelektualaren funtsa; batzuek, unibertsitatean eta mundu akademikoan zedarritzen dute beren esparrua, besteek, berriz, argitaletxe, hedabide eta, oro har, industria kulturean; zenbaitek, estatuarentzat eta korporazioentzat lan egiten duten adituak ere intelektualaren kategoria barruan hartzen dituzte, beste zenbaitek, ordea, ez. Molde honetan osa dezakegu definizio arau emaitzen zerrenda luze eta zehaztua, han-hemenka intelektualei buruzko gogoetetan aurki ditzakegun ekarpenen bilduma oparoa.

Gauza argi bat antzematen da, bada, definizio/preskripzio aniztasun honen atzean. Eta honako hau da: ez dago intelektual isolaturik, ez sustrai sozialik ez eta gizarte erreferentzi punturik ere ez duenik, intelektualen ideologia profesionala maiz kontrakoa sinestarazten ahalegintzen den arren. Intelektualak, metatzen duten kapital kulturala bide dela, gizarte egitura kokaturik daude (Bourdieu-ren ustez, klase menperatzailearen sektore menperatua dira, kapital ekonomikorik izan ez arren kapital kulturalaren jabe direlako) (Bourdieu, 1984: 55). Baina ez hor bakarrik. Arlo intelektualaren egituraren barruan ere egiturazko harreman sareetan eta posizio objektiboetan aurkitzen dira kokaturik, eta euren posizioaren arabera interesak eta estrategiak garatzen dituzte arlo horretan jokatzeko duten beste agenteekin (kultur ekoizle banakoak zein instituzioak). Horren kariatara, pentsatu behar dugu intelektualek euren rolari buruz egiten dituzten hausnarketak —intelektual denaren definizioak barne— ez direla asmo teorizatzaile hutsaren espazioan ulertu behar, ez behintzat maila horretan soilik, agente sozialen gatazka eta estrategia objektiboen markoan baizik⁵.

5. Bourdieu-ren ustez, barne desberdintze maila gero eta handiagoa duten gizarte modernoak erlatiboki autonomoak diren arloetan egituratzen dira. Bourdieu-ren “arloaren” kontzeptua (*champ*) oso egokia da kultur produkzioaren eremua ere sare edo posizio egitura objektibo eta aldi berean dinamiko bezala ulertzeko. Eredu honetan kokaturik ulertu behar dira kultur agente eta instituzio desberdinek garatzen dituzten estrategiak eta jokabideak. Honela definitzen du autoreak “arloaren” izaera: «En

Rol berriak eta nortasun berriak eraikitzen dira krisi garaietan, bai. Ez, ostera, edonolakoak. Sortzen diren rolak aldez aurretik existitzen diren tradizio eta egitura intelektualetatik eratortzen dira eta testuinguru sozial berriak baldintzaturik agertzen dira. Tradizioak eta testuinguruak dira aktoreek paper intelektual berriak berrasmatzeko duten “materia” (Eyerman, 1994: 189-190). Zentzu honetan, esan daiteke azken aldian lan intelektuala burutzeko dauden aukera gero eta handiagoek aldi berean zabaldu eta murriztu egin dutela posibilitate intelektualen arloa. Edo, egiturazko terminoetan adierazita, rol batzuek jaiotzeko posibilitate gehiago izan dute, eta tradizio batzuk eraikiak izateko aukera gehiago beste batzuen aldean. Masa-hedabideek eta kultur industrietan egituratzen duten esparru publikoa dugu egungo kultur ekoizleak bere eragin lana garatzeko duen testuinguru ez bakarra baina bai garrantzitsuenetakoa. Hein handi batean, masa-hedabideek eta merkatu kulturalak euren logikaren arabera taxutzen duten espazioaren inguruan definitzen dira —inklusioz edo eksklusioz— kategori intelektuaak kategoriak gaur egun. R. Zallo eta E. Bustamantek adierazten duten legez, sarritan intelektualek egungo kulturaren errealitate industrial eta komertzialen aurrean begiak itxi badituzte ere, aspaldi zabaldutako eztabaidak irauten duen bitartean —zer egin?, komunikabideak erabili ala ez?, zein ondoriorekin?—, kultur ekoizle asko eta asko kultur industriarekin bizi-sinbiosi estuan sartu dela egiaztatzen da gero eta nabarmenago (Bustamante eta Zallo, 1988: 6).

Ikusgaitasunaren kudeatzaileak: intelektual mediatikoak eta kazetariak

Debray-ren iritziz, posible izango litzateke intelektualaren historia mota bat egitea honek aro bakoitzean eskuragarri izan dituen eragin bitartekoak irizpidetzat hartuz. Eragina eduki ahal izateko, jakina, beharrezkoa da norberaren ahotsa entzunaraztea —edo mezua erakutsi ahal izatea—, hau da, entzuterik onena ahalbidetzen duten tokietan sarbidea izatea.

La volonté de “parler” aux hommes est sans âge, mais la parole publique a une histoire, qui est celle de ses chambres d’écho succesives (...). C’est par l’acoustique que l’espèce intellectuelle sort de plain droit du Jardin des Plantes (Debray, 1979: 148).

Horrela, intelektual nagusiak ikusgaitasun sozialik handiena eta akustikarik onena duten lekuetan kokatuta egon dira beti, une bakoitzeko akustika izan dela izan dena, pulpitoa, ikasgela, argitaletxea zein telebista. Toki hauetariko batek ere ez du aurrekoa ezabatu; bai, ordea, lekuz aldatu eta desklasatu. Halaber, sarbide mugatuaren posibilitatea, eremu intelektuala berregituratzeko diskriminazio

termes analytiques, un champ peut être défini comme un réseau, ou une configuration de relations objectives entre des positions. Ces positions sont définies objectivement dans leur existence et dans les déterminations qu’elles imposent à leurs occupants, agents ou institutions, par leur situation (*situs*) actuelle et potentielle dans la structure de la distribution des différentes espèces de pouvoir (ou de capital) dont la possession commande l’accès aux profits spécifiques qui sont en jeu dans le champ, et, du même coup, par leurs relations objectives aux autres positions (domination, subordination, homologie, etc.). Dans les sociétés hautement différenciées, le cosmos social est constitué de l’ensemble de ces microcosmes sociaux relativement autonomes, espaces de relations objectives qui sont le lieu d’une logique et d’une nécessité spécifiques et irréductibles à celles qui régissent les autres champs» (Bourdieu, 1992 : 72-73).

hierarkikorako faktore bilakatu izan da, baita barne borroka ebazteko, arrakasta neurtzeko eta pertenezkoa bermatzeko elementu ere.

Proposamen honetatik abiatuz, Debray-k gainezarri eta gurutzatu egiten diren hiru aro bereizten ditu *intelligentsiaren* historian: ziklo unibertsitarioa deritzona lehena, bere aburuz 1930. urtera arte nagusitzen dena; ziklo editoriala bigarrena, 1960. urtera arte luzatzen dena, eta, hortik aurrera, media zikloa (Debray, 1979: 49). Egungo arlo intelektualean hiru jalkitze geruza hauek inbrikatzen diren arren —bakoitzari produkzio eta hedapen sistema bat eta legitimitate instantzia bat dagokiolarik—, hirugarrena, hots, masa-hedabideen hegemonia iragartzen duena, da *cleavage* edo haustura lerro gisa azken urteetan arlo intelektuala erro-errotik astindu duena.

Intelektualen etorrera masa-hedabideetara autore gehienek egiaztatzen duten errealtatea da. Alabaina, badaude egon ñabardurak azterketa desberdinetan. Batzuen iritziz, bere garaiko gatazka eta aldaketa sozial eta politikoekin konpromiso kritikoa zuen intelektual ereduaren krisiarekin batera gertatu da prozesu hau. Bobillo-k eta Maldonado-k diotenez, intelektual tradizionalaren funtzioaren tribalizazioa burutu da; lehenengo, kulturaren hedapen masiboaren ondorioz eta gizarte modernoan hirugarren sektorearen hazkundera bide dela, intelektual gisa ulertzen zen kontzeptua zabalduz joan delako eta, neurri batean, disolbatuz. Aldi berean, beste talde profesional batzuei egotzi zaielako antzinako intelektualen funtzioa. Azken aktore sozial hauek, agian kultur prestigio gutxiagoren jabe izanda ere, komunikazio eraginkortasun handiagoa lortu dute, kazetari eta politikoek kasurako. Figura berriok indartsuak dira eszena publikoan, eta egokiagoak eragin sozial zuzena eta zabalagoa ezartzerakoan. Argudio ildo honen arabera, intelektualaren paper tradizionalaren eraldaketan eragiten duen funtsezko elementuak badu zerikusirik hark gizarte modernoetan desadostasun eta kritika mezu klasikoa zabaltzeko duen zailtasunarekin. Intelektualaren ohizko orakulu rola ez da honez gero beharrezkoa, funtzio hori hedabideek betetzen dutelako. Egoera honetan, intelektualek, zuhur edo ausartenez behinik behin, euren ahotsa entzunarazteko ez dute hedabideetara jotzea baino beste irtenbiderik, funtzio tradizionala baldintza berrietara egokitu gura badute, bederen. Sarritan, kazetari gisa profesionalizatzerara ere iristen dira, hainbestekoa izaten da haien integrazioa (Bobillo de la Peña, 1999; Maldonado, 1998).

Beste batzuen ustez, integrazioa ez da maila berekoa izan intelektual guztien artean. Berrio eta Saperas-ek, R. Debray-ren planteamenduari jarraiki, uste dute unibertsitatearen funtzio intelektualaren krisiak eta industria editorialaren lidergo kulturalaren galerak eraginda, 50. eta 60. urteez geroztik masa komunikazioaren alorra erabakiorra izan dela intelektualen bilakaera eta presentzia publikoari eusteko. Masa-hedabideen industriaren ezarrieraren ostean, eremu kulturalaren funtzionamendua ere ez da, ezinbestez, lehengoa izan. Gizarte konplexuetako sistema kulturala kultur eskaintza eta kontsumoaren espezializazio eta zatiketa gero eta handiagoetan oinarritzen da. Horrela, kulturaren industriaren nagusitasunak kulturaren barne mailak dibertsifikatu ditu: kultura jasoa, kultura ertaina eta behe mailakoa bereiztu dira, hain zuzen ere. Behe mailako eta erdi mailako kulturak industria kulturalan eta masa-hedabideek duten gaitasun industrialean daukate jatorria. Goi mailakoa, bestalde, industria horren aurretikoa da; hala ere,

arian-arian haren adierazpen moldeetara makurtuz joan da. Berrio eta Saperas-en hitzetan, teknologia berriak oinarritzat hartuz eratu den kulturaren industria, profesional “praktiko-intelektualen” kontratazioari esker garatu ahal izan da gehienbat: unibertsitateetan eta goi mailako hezkuntzan hezitako profesional hauen zeregina jarduera praktiko eta instrumentaletara zuzendu da. Horien artean leudeke kazetari, publizista, administrari, kudeatzaile eta aditu zenbait. Autoreen iritziz, honek ez du esan nahi formazio tradizionalagoa duten beste intelektual batzuk, hau da, formazio “humanista” jasotako intelektualak, esperientzia honetatik at geratu direnik, inolaz ere. Hauen kolaborazioa, aldiz, gatazkatsua izan da eta euren erreklamendua sortze lanari loturik zeuden arloetan burutu da bereziki (Berrio eta Saperas, 1993: 202-203).

Hortaz, intelektualek ageri-agerian eta hasieratik parte hartu dute kultura industrialaren eraketan, kultura berriak dituen eskakizun tekniko eta kontsumozkoen aurrean ondare kulturalaren egokitzapena bultzatuz. Hala ere, esku-hartze honek hausturak eta bereizketak sortu ditu arlo intelektualaren baitan, protagonismoa, nabari denez, sektore teknikoek eskuratu baitute “humanisten” kaltetan. Azken hauekin alderatzen baditugu, intelektual teknikoek harremana kulturarekiko erabat desberdina izan da: industria berri baten zerbitzura dauden aditu soldatapekoak dira eta ez dute azaltzen, intelektual humanisten antzera, produkzio-jardun sortzailearen euskarri izan daitekeen autonomia defendatzeko borondaterik. Hala da masa-hedabideek eta industria kulturalak deuseztu egiten dutelako teknikoek ahalmen sortzailea; aldi berean, teknikoek intelektual tradizionalen ohizko funtzio kulturalak eskuratu dituzte apurka-apurka. Ondorioz, unibertsitatean kokaturiko jarduera profesionalak eta kontzientzia kritikoa garatzeko gaitasunak ezaugarritzen dituzten intelektualak gero eta baztertuago geratu dira hedabideen kultur produktiotik. Ez da harrizkoa bada, kulturaren industriaren balorazio kritikoa formakuntza humanista duten intelektualen eskutik etortzea (Berrio eta Saperas, 1993: 203-204).

Baina, kritikak kritika, intelektualen integrazio masiboa kultur industrian —batzuetan aldikakoa, behin behinekoa edo neurtua eta, besteetan, erabatekoa eta baldintza gabekoa— errealtate bihurtu da. Zalantzarik gabe, hedabideek atseginez hartzen dituzte intelektualak euren magalean, azken batean, Oltra-k dioen bezala, legitimazioan adituak dira (Oltra, 1978: 18-19) eta euren premia nabarmena da. Bertakotze hori ez da, alabaina, musu-truk gertatzen. Aitzitik, intelektualek joku arau batzuk onartu behar izan dituzte eragozpenik jarri barik: hedabideenak berezkoak diren estilo zehatza eta erritmoa, esaterako, eragin erabakiorrak dituztenak mezuaren edukietan. Izan ere, arrazionaltasun formalak, teoria kritikoak erakutsi zuen legez, eduki ondorioak ditu, halabeharrez. Denbora eta espazio estuasunak, gero eta gehiago neurtzen den testuaren luzera mugatuak, lexikoak, diskurtsoaren tonuak, aspektu hauek guztiak dira, besteak beste, hedabideetan azaltzen den lan intelektuala taxutzen duten molde bereziko hertsadurak, intelektualak barneratu behar dituenak⁶.

6. M. Zubiagak intelektual “bertsolariak” hitz egiten digu, intelektualaren forma postmodernoa ezaugarritu nahian: «Hitz-joko azkarrak, ale bitxiak, mintz-apar ikusgarria, jario arina eta entzulego fidelak berretsi nahi duena polito botatzea, horiek dira bertsolariari betidanik eskatu zaizkionak (...). *Fast thinkers* edo pentsalari arin horien bat-batekotasun kutsakorra mundu mailan hedatu den bezala, gurean ere “intelektual bertsolariaren” jarduna nagusitzen ari da. Bertsolari finen antzera, oraingo

Kulturaren industriaren funtsezko ezaugarrietako bat litzateke kultur ekoizle berriekiko —hots, profesional mediatikoekiko— sortze intelektualak duen menpekotasuna. Haiek erabakitzen dute eskaintza kulturalaren izaera eta beronen banaketa sozialaren eredia —merkatua—. Ekoizpen intelektualaren egiletasunaren galera areagotu egiten da kultur produkzioa sistema ekonomikoaren logikaren agindupean —askotan, botere politikoaren interesen menpe— murgilduta geratzen delako: honela, interes ekonomikoa eta menpekotasun politikoa bilakatzen dira kultur jardunaren ardatz nagusia; jardun hori intelektual mediatikoen esku egoten da, bereziki. Berbarako, Berrio eta Saperas-ek nabarmentzen dute profesional mediatikoen artean intelektual sortzaileen kaltetan sortu eta gora egin duen figura baten presentzia: iritzi emaillearena. Izenak berak adierazten duenez, hedabideek iritzia emateko aukeratzen duten profesionala da, baina hedabideek ezartzen duten erritmoan, jakina; edozein gairen inguruan hitz egiteko gaitasuna ezagutzen zaio ezelango espezializaziorik, dokumentaziorik edo hausnarketarako aukerarik izan gabe; bere iritzi sortze lana *mass medietako* gai agendan dagoen gaurkotasunaren eta berehalakotasunaren dinamikan kokatzen da (Berrio eta Saperas, 1993: 207). *Fast thinker* delakoa gaurko kazetaritza eredu batzuetan, batez ere ikus-entzunezko hedabideetan, aurkitzen dugun pertsonaia berezkoa da. Honen dibulgazio ahalmen azpimarragarria ukatu barik, bere pentsamendua- ren azalekotasunak eta arinkeriak urrundu egiten dute kultur ekoizle tradizionala- rengandik. Gero eta argiago ikusten den legez, gertakarien gailentasuna hausnarketa ezaren ondoan da kulturaren industriaren bereiztasunetako bat: horrela, kultura zatikatua, inpaktua, zirrara eta nobedadearen kultura, mosaikozko ezagutza eta antzeko terminoak erabiltzen dira maiz hura ezaugarritzeko.

Ezagutzaren produkzio mediatiko-industrialia

Ildo honetan sakonduz eta argumentazio larroan urrats bat gehiago emanaz, masa-kulturaren gizartean ezagutza mota berri bat nagusitu dela baieztatu dute oraintsu egindako ekarpen teoriko batzuek (Ortega eta Humanes, 2000: 13-14). Ezagutza berri horrek, ezin izan bestera, ezagutza ekoizle berrien goraldia dakar. Errealitate berria, alabaina, lehengo kultur produkzio sistema eta kultur produkzio hori burutzen zen esparru autonomoen deuseztapenarekin batera geratzen da.

Askotan, ezagutzak gizartearen gain duen ahalmen egituratzailea adierazi guran, ezagutzaren gizarteaz hitz egiten da egungo gizarte zientzietan. Ezagutza, berehalako hautematek at dauden errealitateak eskuratzeko dugun baliabide bakarra da, hortaz, lehen mailako tresna gizartearen esperientziak eraikitzeko eta bere eraketa instituzionala antolatzeko. Baina honek ez du esan gura —Ortega eta Humanes-ek mantentzen duten arrazoibidearen arabera— nahitaezko bihurtu den ezagutza honek, beti eta lehentasunez zientifikoa izan behar duenik. Honen ondoan, badaude eragin sozial handia duten eredu kognitiboak, masa-kulturatik darienak batik bat.

intelektualak gai-jartzailearen esanetara eta puntuari jarraikiz dihardu. Berrikuntza asmorik gabe» (Zubiaga, 2001: 69, 71). Ildo beretik, P. Bourdieu-k ere, pentsamendua- ren eta denboraren artean dagoen lotura nabarmentzen du; lotura hori negatibo bihurtzen da premia eta presa nagusitzen direnean, bereziki telebistan *fast thinker*-ekin gertatzen den bezala (Bourdieu, 1997c: 38-39).

Los procesos culturales de nuestra época confluyen en un grado superior de cultura de masas, en la que las nuevas tecnologías de la comunicación y de la información están debilitando las instancias y mecanismos de producción y transmisión culturales que hasta ahora habían sido eficaces en la elaboración de marcos y pautas de referencia que oponer a la cultura masiva (Ortega eta Humanes, 2000: 15).

Hain zuzen ere, badago egungo gizarteetan masa-kulturatik eratortzen den ezagutza bat, tradizio orotik aldendu eta ezagutza soziala bihurtu dena, hau da, egintza soziala “azaldu” eta “orientatzen” duena.

Ezagutza eredu hori kultur industrietan elaboratutako produktuen ondorioa da, dakigunez. Enpresa kapitalista izanik, kulturaren korporazioek, enpresa markotik kanpo produzitu ahal izateko, ekoizle independenteek dituzten errekurtso eta gaitasunak desjabetzen dituzte. Era honetan, kultur enpresek ezagutza sortzaile autonomoen existentzia posibilitateak galerazten dituzte. Ezagutza sortzailea, intelektual izatera irits daiteke, merkatu kulturala oligopolizatzen duten erakundeekin bat eginez gero, ez bestela. Eta erakunde hauek edo arlo zientifikoan edo kulturaren industrian baino ez dira aurkitzen. Ortega eta Humanes-en ustean, lehenengo arloak, zientifikoak alegia, eztabaida publikotik urruntzea lortu duen neurrian funtzionamendu autonomoa burutu du, haatik, ez da baliagarria gizartearen zuzendaritza morala eta intelektuala bideratzeko. Kulturaren industria besterik ez da geratu, beraz, ezagutza sozialak ekoizteko eta hedatzeko instantzia legitimo bezala. Industria kulturalen izaera, alabaina, erabatekoa eta itxia da: industriok prozesu kultural guztia kontrolatzen dute, sortze unetik hedapen unera-arte; ondasun sinbolikoen produkzio arauak ezartzen dituzte; euren intelektualak definitu eta kontratatzen dituzte, kultur komunikazioaren kanalen jabe dira eta publikoak moldatzeko gaitasuna dute, besteak beste (Ortega eta Humanes, 2000: 39). Funtzio hauek direla medio, botere politikoaren mesedetan jarduten duten instantzia bilakatzen dira gehienetan, kultur industriok botere politikoaren tresna ezin hobek baitira integrazio soziala lortzeko.

Honenbestez, “iritzi publikoa” deritzona ere gaur egun korporazio mediatikoen kuasimonopolioa litzateke. Hedabideetan publikatzen den iritziak eragin handia duenez iritzi publikoaren irudiaren eraikuntzan, iritzi publikoa korporazioetan integraturiko hedabideetan adierazten denaren emaitza bihurtzen da, hein handi batean. Izan ere, korporazioak du une bakoitzean iritzia zuzentzen duen marko kognitiboa ezartzeko ahalmena. Iritzia ia desjabetuta dago masa-komunikazioaren esparrutik kanpo leudekeen esparru intelektualez. Zentzu honetan, masa-hedabideen irizpideak jorratzea eta aktibatzea bihurtzen da intelektual mediatikoen zeregina. Horretarako, intelektual organikoaren egokitzapen honek korporazioaren moldeak eta patrioiak eskuratu behar ditu, ekoizpen kulturalaren arau eta esparru autonomoak saihestuz. Azken batean, kultur enpresak eta bere baitan nagusi diren taldeek dute intelektuala nor den definitzeko ahalmena. Oraingo honetan, ez da ezagutza produkzioa edo publikoarekiko lotura intelektuala intelektual bihurtzen duena, masa-komunikazio bilbean sarturik egotea baizik, horrek bermatzen baitio esparru publikorako sarbidea. Horrela ulertzen da, oraindino pentsalari bakan batzuk kultur esparru tradizionaletatik etorri arren, gaur egungo gizarteetan intelektual gisa definitzen diren gehienak masa-hedabideen benetako emaitza izatea; Ortega eta Humanes-en ustean kazetariak dira, ez beste.

Kazetarien boterearen oinarria ez datza ezagutza maila, espezializazioa edo kultur-produkzio ahalmena bezalako irizpideetan. Profesional mediatikoen botere eta eraginaren zio nagusia errealitatea definitzeko duten gaitasunean errotzen da, errealitate horren inguruan sortzen dituzten errepresentazioetatik abiatuz eraikitzeko ahalmenean, alegia. Jakina, errealitate hori taxutzerakoan ezinbesteko elementua da dimentsio publikoaren egoztea. Horregatik, kazetarien egintzaren ondorioak ez dira mugatzen euren zirkulu profesionalera edo esparru mugatu batera; zirkulu horiek gainditu egiten dituzte, publikoa dena definituz. Kazetariak euren praktika profesionalean sortzen dutenak, “berri” bilakatzen duten guztiak, esaterako, automatikoki hartzen du publikotasunaren kualitatea. Ahalmen hau ez da, bistakoa denez, nolana hiko. Ez dugu ahaztu behar mundu soziala sistema sinbolikoa dela, eta haren hautematearen inguruan etengabeko borroka sinbolikoak garatzen direla: borroka sinbolikoak zentzu arruntaren ezagutza ezartzeko, izendapen legitimoa erabakitzeke, esanahi batzuk publikoki existiarazteke (Bourdieu, 1988: 136-137). Baina botere sinbolikoa, hau da, ikuspegi legitimoak ezartzeko ahalmena —*worldmaking* boterea, azken finean—, ez dago berdinki banatuta agente sozialen artean. Intelektual mediatikoak sarritan ez dira gaitasun kulturalak eskainitako legitimitatearen jabe, lehengo intelektualen kasuan bezala; hala ere, gaur egun masa-hedabideak eta, euren baitan, profesional mediatikoak oso gauza preziatuaz baliatzen dira euren mesedetan: espazio publikorako sarbidearen giltza izateaz. Kokapen estrategiko hori dela medio, euren gai agendak jartzean, eurek definituriko auziak eta iritzi legitimoak —publikoak— kaleratzean, politikoki pentsa daitekeenaren alorra definitzen dute eta gizartearen errepresentazio “zuzenak” direnak zedarritzen dituzte.

Gizarteak ez dauka “kontzientzia kolektibo” espontaneo edo berezkorik; horregatik, bera errepresentatuko duten irudien errekurtsioa erabiltzen da, irudi horiekin identifika daitezke —gehienetan eskuratuz, zenbaitetan ukatuz— aktore indibidualak eta talde sozialak⁷. Horrek zenbait ezaugarri, dimentsio, iritzi edo erreferentzia erakustea eskatzen du —agian zenbait ezkutatzea ere bai—. Gizarteari aipatu elementuok ikusgarri egiteko botereak, hain zuzen ere, definitzen ditu egun komunikabideak eta kazetariak aktore sozial gisa. Honenbestez, J.B. Thompson-ek deskribatzen duen “ikusgaitasun mediatikoak” kokatzen ditu profesional mediatikoak esparru publikoa kontrolatzeko moduko lekuan, eurak baitira gizartea gizartearentzat ikusgarri egiten dutenak. Beraiek sortutako irudikapen kulturaletan ezaugarri bi aurkitzen dituzte, besteak beste, Ortega eta Humanes-ek: gizartearen errepresentazio selektiboa eta aktore sozialentzako esperientzia markoen eraikuntza (Ortega eta Humanes, 2000: 63). Era honetan, errealitate sozialari buruzko kontzeptu eta ikuskeren iturri den mapa kognitibo oso

7. Adiera honetan, iritzi publikoa ere gizartearen errepresentazioetariko bat da. Honela dio B. Mirandak: «Cuando hablamos de Opinión Pública nos referimos generalmente a la representación de la sociedad o parte de ella, expresándose en relación a lo “político” o asuntos de “interés general”. Cuando la sociedad “habla”, se expresa a través de los diferentes medios de que dispone, la llamamos Opinión Pública. Es pues una representación colectiva de la sociedad en la cual ésta se nos presenta actuando, expresando una voluntad sobre asuntos públicos. La O. P. es una representación de las muchas que hacen posible la vida social, ya que ésta “está enteramente constituida por representaciones (...) que nacen de la acción y la orientan” (Durkheim)» (Miranda, 1991: 22).

bat eraikitzen duen neurrian, gizartearen irudikapen selektiboa ezinbesteko erreferente kultural bilakatzen da aktore sozialen egitura kognitiboen eraketan⁸.

Arlo intelektualak: autonomia eta heteronomiaren artean

Gizartearen irudikapenen eraikuntzan kazetariak duten eragin soziala handia izanik ez da txikiagoa euren nagusigoaren ondorioz kultur produkzioaren arloan sorrarazi duten berregituraketa. Dударik gabe, gizartearen esparru publikoa kontrolatu ez eze arlo intelektualaren funtzionamendua ere baldintzatzen dute intelektual mediatikoek, beronen barne egituran etengabeko astinaldiak eraginez. Zenbaiten ustez, arestian aipatutako intelektualaren definizio klasikoetan agertzen den mailaketa hierarkikoa ere irauli egiten dute figura berriek, hainbestean eze arlo intelektualaren bazterretatik erdigunera desplazatzen duten euren kokapena. Hala ere, azalpen hauen ondoan guri egokiago begitantzen zaigu definizio saio positibistak saihestea —“benetako” intelektualak nortzuk diren diotenak, alegia— uste baitugu arlo kultural-intelektualaren barne aldaketak gizarteko arlo orotan burutzen diren gatazka iraunkorren emaitza baino ez direla. Borroka horien bitartez ebazten da, preseski, arloaren beraren mugen definizioa, kasu honetan kultur agente ezberdinen eksklusioa edo inklusioa arloan, eta euren kokapen sinbolikoa, bazterren inguruan edo erdiguneetan.

Mundu sozialari buruzko posizio hartze oro mundu horretan dugun kokapen zehaztetik abiatu eta antolatzen da, hau da, kokapen horri lotzen zaion boterearen kontserbazio eta handitzearen ikuspegitik (Bourdieu, 1984: 26). Pentsa dezakegu, hortaz, kultur produkzioaren arloa ez dela salbuespena; bertan ere praktika legitimoaren definizioa ezartzeko ahaleginean jarduten dute kapital kultural eta errekurtsu desberdinen jabe diren agenteek, eta euren interes espezifikoaren araberako estrategiak garatzen dituzte, besteak beste, intelektualaren “esentzia” egiazki gauzatzen duen figuraren errepresentazio desberdinak sortuz eta defendatuz, beste errepresentazio batzuen aurrean. Hain zuzen ere, testuinguru honetan ulertu behar dira kazetari eta osterantzeko intelektualek, lehengo botere gero eta handiagoa dela medio, beren buruari buruz sortzen dituzten irudikapen eta definizioak. Honetara, une zehatz batean agertzen diren definizioak, edota kultur ekoizle banakoak ematen dituen definizioak, definizio legitimoa

8. Bide beretik doaz azken urteetan komunikazio mediatikoaren alorrean hain ezagunak diren “agenda setting” delakoaren teoria eta Luhmann-ek azaltzen duen “tematizazioaren” teoria. N. Luhmann-en teoria sistemikoaren ikuspegitik, egungo gizartearen izaera konplexua aintzat hartuta, konplexotasun horren mekanismo murriztaileak bilatu beharra azpimarratzen da. Mekanismo horien artean, iritzi publikoa aipatzen du berak, “komunikazio kolektiboaren egitura tematiko” gisa ulertuta: izan ere, iritzi publikoa ez baitago honez gero iritzi osaturik, gizarte komunikazio eratuaren gai instituzionalizatuz baizik. Zentzu honetan mintzatzen da C. Monzón ere: «la comunicación social de masas institucionalizada proporciona el “contexto universal”, dentro del cual el número ilimitado de tematizaciones posibles es reducido por dicha comunicación institucionalizada a una estructura comunicativa pública muy selectiva. En otras palabras: la exclusión de la gran mayoría de posibles temas, que la correspondiente constelación de reglas de atención no admite (...) contribuye a la selección de una realidad pública. La opinión pública se encuentra ahora en la “estructura temática” que difunden los medios, una estructura de sentido común, acústica y receptiva desde los públicos, que se presenta como lugar común de referencia, orientación y salvaguarda de la integración social» (Monzón, 1996 : 270-271).

ezartzeko dauden borroken egoerari dagozkio, eta uneko indar orekaren isla bihurtzen dira.

Honek guztiak adierazten digu arlo kulturalaren mugak higikorrek direla eta bere barne egitura ez dela ulertu behar posizio zurrunez osaturiko argazki finko antzera, era dinamikoan baizik. Espazio horretan jarduten duten eragileen saioak, ordea, euren posizioak indartu eta finkatzera zuzendurik joango dira.

Una de las propiedades más características de un campo es el grado en que sus límites dinámicos (...) son convertidos en frontera jurídica, protegida por un derecho de entrada explícitamente codificado (Bourdieu, 1995: 335).

Sarrera eskubide hori eskuratzeko, edo bere gainetik jauzi egiteko, errekurtsio desberdinak erabiliko dituzte kultur ekoizleek arlo intelektualean: berezko kultur errekurtsioak, ahal denean, bai eta kanpokoak ere. Izan ere, orain arte ikusi dugunez, arlotik kanpo gertatu diren aldaketek eragin handia izan dute ekoizle desberdinek baliabideak lortzeko izan dituzten aukeretan; honelaxe gertatu da intelektual mediatikoen kasuan, hedabideen erabilerari esker sekulako baliabide gehitzea lortu baitute arlo kulturalen zeukaten kokapen marginala hobetzeko. Prozesu berdintsua antzeman dezakegu unean uneko aginte politikoaren itzalean diharduten pentsalarien kasuan ere: haien errekurtsio eta eragin metaketa biderkatu egiten da beste kultur ekoizleen ondoan.

Edozelan ere, kanpo zein barneko logikaren erabileraren auzia ez da oraingoa. Kultur produkzioaren arloa gizarte modernoan arlo erlatiboki autonomo gisa sortzen den unetik⁹, intelektuala —eta, oro har, kultur ekoizlea, artista, idazlea, zientzilaria—, bere lana burutzeko edo bere kultur produktua ekoizteko sistema biren artean aukeratu beharrean dago¹⁰. Izan ere, arlo kulturalaren sorrerak produkzio zirkuitu bi zabaltzen ditu: ziklo laburra duen kultur produkzioa —produkzio handia— alde batetik, eta ziklo luzea duena —produkzio “garbia”—, bestetik; arrakasta komertzialaren bila, publiko zabalari egokitua, lehenengoa, eta merkatu murriztura zuzendua, bigarrena (Bourdieu, 1984: 158; 1995: 186, 213-215, 322). Honenbestez, muturreko eredu bi hauek produkzio sistema desberdinak ezartzen dituzte arlo kulturalaren baitan. Ez, haatik, hori bakarrik. Merkatu ekonomikoarekiko distantzia desberdinak eta barne hierarkizaziorako irizpide kontra-jarriak dakartzate beraiekin; beraz, kultur arloak lor dezakeen autonomia mailan eragiten dute nabarmenki.

Aldi berean merkantzia eta esanahi izanik, ondasun sinbolikoak aurpegi bikoitza duten errealitateak dira. Era honetan, bata bestetik independienteak izan daitezkeen balio sinbolikoa eta balio komertziala biltzen dituzte euren baitan. Ziklo luzeko produkzioaren azterketari ekiten badiogu, ohartzen gara ekonomia “antiekonomikoaren” logika nagusitzen dela bertan: honela, “desinteresaren” balorea hobesten da komertzialtasuna eta epe laburreko etekin ekonomikoaren aurrean. Halaber, kapital sinbolikoaren metaketa bilakatzen da helburu, merkatuaren logikatik kanpo, autonomoak diren irizpideen arabera ekoiztutako kultur produktuen balioa bultzatu eta legitimatzen baita. Ziklo laburreko produkzioak, berriz, kultur

9. Kultur produkzioaren arlo autonomoaren sorrera aztertzeko, ikus Bourdieu 1975, 1983 eta bereziki 1995.

10. Ch. Kadushin-en iritzitan, halere, intelektuala aldi berean sistema bietan aritzen dena izango litzateke (Kadushin, 1987: 113).

ondasunen merkataritza beste ondasunen pareko bihurtzen du. Gorago aipaturiko kultur industrien logika dugu hau, non lehentasuna hedapenari eta berehalako arrakasta eta irabazteari ematen zaien¹¹.

Kultur produkzio zirkuitoetara hertsiki loturik aurkitzen ditugu hierarkizazio eta konsagrazio irizpide bereizgarriak ere. Mutur batean, arloaren kanpoaldetik datozen konsagrazio printzipioak daude indarrean, kultur ekoizlearen arrakasta, hain zuzen, harrera komertzialaren, ospe sozialaren edota sari politikoaren arabera neurtzen denean. Beste muturrean, osterara, barne hierarkizazioaren printzipioak gailentzen dira, berdin aldetik datozenak; bada, kultur arloak ondasun kulturalen ekoizleei bereak diren arau eta zigorrak ezartzeko besteko ahalmena edo autonomia duenean nagusitzen dira irizpideok.

Horregatik, kultur arloa bere konsagrazio eta legitimazio instantziak sortzeko gauza ez denean edota kanpoko irizpideak erabiltzen dituzenean, gaur egun gero eta sarriago gertatzen den bezala, arlo intelektualaren autonomia beherantz doala ondorioztatu behar da. Ezerk ez ditu bereizten gehiago intelektual batzuk besteengandik legitimazio irizpide hauek baino.

El grado de autonomía de un campo de producción cultural se manifiesta en el grado en que el principio de jerarquización externa está subordinado dentro de él al principio de jerarquización interna: cuanto mayor es la autonomía, más favorable es la relación de fuerzas simbólica para los productores más independientes de la demanda y más tiende a quedar marcada la división entre los dos polos del campo, es decir, entre el subcampo de producción restringida, cuyos productores tienen como únicos clientes a los demás productores, que también son sus competidores directos, y el subcampo de gran producción, que se encuentra simbólicamente excluido y desacreditado. (...) Nada divide con mayor claridad a los productores culturales que la relación que mantienen con el éxito comercial o mundano (y los medios para alcanzarlo, como por ejemplo, hoy en día, el sometimiento a la prensa y a los medios de comunicación modernos): reconocido y aceptado, incluso tal vez hasta buscado deliberadamente por unos, es rechazado por los defensores de un principio de jerarquización autónoma como prueba de un interés mercenario por los beneficios económicos y políticos (Bourdieu, 1995: 322-323).

Bereziki kezkarria bilakatzen da produkzio laburreko lan intelektuala gizarte zientzien arloan gailentzen denean. Izan ere, gaur egun gizarte zientziak arlo zientifikoan kokatzeaz gain arlo mediatiko-intelektualean ere sustraitzen dira, beren aztergaiak eztabaida sozialaren eta kazetaritza-gaurkotasunaren erreferente baitira une orotan. Arestian esan den legez, hedabideek espazio publikoaren gai agenda ezartzen dute komunikazio egitura selektibo baten markoan. Gizartean eztabaidagai diren materiak, hortaz, alde aurretik definituta plazaratzen dira eta, beti ez bada ere, sarritan, euren definizioak gizarte zientzien eremura igarotzen dira adierazirik dauden bezalaxe. Kazetari eta saiogileek gaurkotasunaren eremuan aktibatzen dituzten "mundu" gatazkak dira, maiz gatazka errealak ezkututzen dituztenak euren formulazioen atzean. Horrenbestez, mundu sozialean nagusi diren errepresentazioek duten eragin "kutsakorra" dela medio, zaildu egiten da gaur egun gizarte zientzien aztergaiak eskatzen duen eraikuntza prozesua burutzea,

11. Ondasun kulturalen ekonomia "antiekonomikoari" buruz, ikus Bourdieu, 1997b: 182-186; 1995 : 213-214.

zentzu arruntaren ilusiotik eta gizartean sortutako irudikapenetatik at. Are zailagoa, arazo eta gai “ofizialak”, arazo legitimo bezala aurkeztuak direnean, “aditu” edo intelektual zenbaiten eskutik, hedabideetan eta kultur industriaren beste instantzietan (argitaletxe, etab). Eta oraindik konplikatua goa, adituok, euron iritzi kritikoen bitartez, produkzio kulturala epaitzeko arlo kulturaletik kanpo eta merkatutik zein botere politikotik hurbil kokatzen diren balorazio irizpideak inposatzeko gaitasuna dutenean.

Bourdieu-ren iritzi, kazetaritzaren eragina kultur produkzio arloetan, bereziki filosofian eta gizarte zientzien eremuan, kazetaritza arloa eta arlo berezituaren artean, hau da zalantzazko espazioetan, kokaturik dauden kultur ekoizleen interbentzioari esker burutzen da.

Estos “intelectuales periodistas”, que utilizan su doble pertenencia para sortear las exigencias específicas de ambos universos e introducir en cada uno de ellos unos poderes mejor o peor adquiridos en el otro, están en disposición de (...) introducir formas nuevas de producción cultural, situadas en una zona mal definida entre el esoterismo universitario y el esoterismo periodístico (Bourdieu, 1997: 112).

Izatez, kazetaritzaren mikrokosmosa ere egituraturik dagoen arloa da, lege propioak dituena. Intelektualaren kategoriarekin gertatzen den era berean, kazetaria, banako gisa ulertuta, izaki abstraktua, kategoria analitikoa baino ez da; benetan existitu, ordea, kazetari ezberdinak existitzen dira, sexua, adina, heziketa maila, egunkaria edo hedabidearen arabera hartuta, euren artean kokapen zehatzak dituztenak harreman-sare hierarkiko edo mailakatuen barruan. Egituraturik dagoen kazetaritzaren espazio sozialean, harreman objektibo horietan trabaturik, bada, kokatzen dira kazetari zein hedabideak eta bertan jarduten dute agente guztiek, nagusi batzuek, menpeko besteek. Honela, kazetari batzuk kultur produkzioaren arlotik hurbil aurkitzen diren bitartean, beste batzuk urrun kokaturik daude. Eta gero eta lan egoera makalagoetan dauden kazetari talde zabalen ondoan¹², *media* inportanteetan euren irizpideak ezartzen dituzten iritzi emaile eta intelektual mediatiko nagusiak agertzen dira. Egoera bera errepikatzen da hedabideen kasuan: hedabide indartsu eta ahulak daude, eragin handia dutenak eta eragin gabeak, informazioa eskaintzen dutenak eta hedabide sentsazionalistak, egunkariak eta telebistak, boterearen arloaren inguruetan kokatzen direnak eta hortik at daudenak.

Baina, kazetaritza arloan posizio aniztasuna ikusten badugu ere, gorago aipatutako logika biak aintzat hartuta, azken urteetan gauzatu den joerak nabarmenki erakusten digu kazetaritza arloaren baitan eratzen diren indar harremanak mur

12. A. Accardo-k “intelligentzia prekararioari” buruz hitz egiten du kazetariez ari denengan. Kolokako egoera hori, alabaina, egungo lan intelektual gehienari egozten dio. «(...) le témoignage porté sur la condition de journaliste précaire enveloppe un témoignage sur les transformations actuelles du journalisme qui enveloppe lui-même un témoignage sur l'évolution du travail intellectuel et du statut de l'intelligentsia dans un monde dominé par la logique marchande. Par la fenêtre du journalisme précaire on embrasse ainsi une large part du paysage journalistique qui ouvre à son tour sur le panorama économique et social, de sorte qu'en parlant ici de journalisme et de journalistes, on parle en même temps d'une grande partie de ces catégories sociales que recouvre l'étiquette, trop limitative, d' 'intellectuels', et qu'il conviendrait peut-être de désigner par l'appellation, moins chargée d'histoire, de 'producteurs de biens symboliques', en ce sens que leurs activités ont pour fin d'élaborer et mettre en circulation des représentations de la réalité, en réponse à des demandes sociales d'information et de formation, à des besoins de sens et de valeur» (Accardo, 1998 : 7, 11).

komertzial —eta botere politikoaren— aldera makurtuz joan direla. Kazetaritzaren unibertsoa arlo ekonomikoaren eta politikoaren hertsaduren eragin zuzenaren menpe dagoen mundua da eta, neurri berean, kazetaritza esparru horrek mundu sozialean duen gailentasunaren ondorioz, beste unibertso sozialen gain ezartzen ditu hertsadura berberak. Kultur produkzioaren mundua, zer esanik ez, ez da eragin horretatik onik ateratzen. Besteak beste, azken urteetan kazetaritza arloak jasan duen indar berregituraketa dela bide, produkzio intelektualarentzat ego-kiagoak ziren hedabideak —informazio egunkariak, aldizkari “serioak”— kokapen gero eta bazterrekoagoak eskuratu dituzte arloaren barruan, edota, besterik gabe, desagertuz joan dira¹³.

Bolizko dorrea ala menpeko oihartzuna

Ikusi dugunez, gaur egungo intelektualak, akustikarik ezean, ikusgaitasuna lortu ezinean, ezindu gelditzeko arriskua du bere eragin asmoak burutzeko orduan. Egiazki, badirudi kultur produkzioaren arloari geratzen zaizkion aukerak, edo berezko autonomiaren mesedetan bolizko dorrera itzultzea, edo merkatu eta kultur industrien baldintzei men eginez ezagutza autonomo baten posibilitateak baztertzea, horiek baino ez direla. Isiltasuna edo zentsurapeko oihartzuna, alegia. Hone-tara, esan dezakegu egungo arlo intelektualaren erronka betiko erronka baino ez dela: kulturari hitz publikoa —hau da, politikoa— ematea, kultur produkzioa bera erabat interes arrotzen menpeko jarduera bihurtu gabe, izan ere, gero eta erronka zailagoa berau.

Honen kariatara, kulturaren autonomiaren aldarrikapena eta konpromisoaren premia —intelektualak berezkoa duen hiriko arazoekiko inplikazioa— era desberdinetan uztartu gura duten proposamenak aurkitzen ditugu, beti ere intelektualaren plazaratze publikoari baldintzak ezartzen dizkietenak. Horietako gehienetan, kulturarentzat gizarteko beste arloekiko autonomia erlatiboa errebin-

13. Lan intelektualaren garapenean duten eragin bereizgarria dela eta autore gehienek bereizten dituzte kalitatezko edo prestigiozko egunkariak eta bestelakoak. Egunkari eta aldizkari “serioak” intelektualen eztabaida foro eta konsagrazio tresna garrantzitsuak izan dira betidanik, bereziki intelektual “serioentzat”, hau da, arlo intelektualean botere posizioak dituztenentzat. Zentzu honetan, E. Uriartek uste du “kalitatezko prentsa” dela intelektualen berezko eztabaida-gunea Espainian (Uriarte, 1996: 155-156). G. Imbert eta J. Vidal Beneyto-k, bestalde, *EL PAIS* egunkariaren funtzioak aztertzean, aspaldi adierazi zuten badagoela erreferentzia nagusiko espazio publiko bat, eliteko edo sona handiko egunkariak osatzen dutena, bereziki integrazio sozial eta politikoan paper garrantzitsua duena. Honela ezaugarrituta agertzen dira egunkariok: «Ambitos específicamente visibles por parte de los responsables institucionales y del establishment socio-profesional, provistos de un grado elevado de credibilidad colectiva, sirviendo de campo de debate y consenso argumentados de los grandes temas comunes y funcionando como plataforma de lanzamiento y foro de consagración de los protagonistas de la vida pública» (Imbert eta Vidal Beneyto, 1986: 23). R. Debray-k ere antzeko gogoetak egiten ditu LE MONDE egunkariaren inguruan, frantses gizartearen “buletin ofiziala” kontsideratzen duenean, edota goi mailako inteligentzia eta Estatuaren goi mailako pertsonalaren arteko buzoia. Honen ustez, Frantzia “zerbait” edo “norbait” izan nahi duten guztiek, arlo politikoan, intelektualean, zientifikoan zein artistikoan, ondotox dakite hura dela lurraldean sortutako produkzio sinboliko guztien erregistroa (Debray, 1986: 139). Bourdieu-k, bere aldetik, egunkari nagusi “legitimo” gisa kalifikatzen ditu (Bourdieu, 1998: 454, 457). Hala ere, telebista eta egunkari sentsazionalisten ondoan, kazetaritza arloaren barruan idatzizko kazetaritzak —eliteko egunkariak barne— duen posizio gero eta ahulagoa azpimarratzen da joera nagusi bezala, intelektual “telematiako” berrien garapenean honek duen eraginarekin batera (Bourdieu, 1997c).

dikaten da. Hau da, esate baterako, Weberrek zientzilari eta politikariari egozten dizkien etika desberdinen abiapuntua hartuz, Bobbiok egiten duena kulturaren politikarekiko autonomiaren beharra azpimarratzen duenean. Bere ustez, kulturaren politika propioaz hitz egin behar da. Kulturaren politikak —politika arruntetik bereizten denak— badu berezko balioa: giza harreman berrien bilaketaren mailan kokatzen da, bizitza sozialaren dimentsio berrien aurkikuntzan, balio berrien sor-kuntzan. Intelektualari dagokion lan “politikoa” teoriak lantzea, ideiak argitaratzea eta arazoak planteatzea litzateke; politikoari dagokiona, berriz, erabakiak hartzean datza (Bobbio, 1998: 55, 70, 73). Ez du Bobbio-k, haatik, arlo kulturalak helburu horiek erdiesteko dituen baliabideen azterketan sakontzen, ezta arlo publikorako sarbideak dituen kosteetan.

Bobbio-k kulturaren politika propioa defendatzen badu, Bourdieu-k tresna politiko gisa ulertzen du kultura. Tresna politiko horren eraginkortasuna, alabaina, kultur produkzioaren autonomian datza, bere barne arau eta konsagrazio irizpideen kontserbazioan, besteak beste. Izatez, zenbat eta handiagoa izan autonomia, arlo kulturaletik kanpo eraginkortasun sinbolikoz hitz egitea zilegitzen duen autoritate espezifikoa lortzeko posibilitate gehiago dago. Autoritate espezifikoa ahalik eta gehien metatzeak (zientzian, literaturan) bermatzen du, hortaz, indar politikoa osatzeko aukera (Bourdieu, 1997a: 65-66), are gehiago politikari eta zuzendari ekonomikoak zientziaz eta ezagutza adituaz baliatzen diren egungo gizarteetan —ez, gehienetan, hobeto gobernatzeko, baizik eta euren egintza politikoak legitimatzeko—. Horregatik, arlo kulturalaren autonomiaren defentsa —bereziki gizarte zientziana—, egintza politiko apartekoa bihurtzen da gaur egun. Planteamendu honetatik abiatuz, baina, kultur produkzio arloetarako sarbide eskubidea maila altuan mantentzea oinarrizko baldintza bihurtzen da; Bourdieu-ren ustean, kulturaren hedapena ez datzalako kultur mailaren jaitsieran —hedabideen demagogia komertzialak erakutsi nahi duen legez—, kultura hori eskuratzeko baliabideen hedapenean baizik. Hori dela eta, kultur ekoizleak aztertu behar ditu eta, ahal duen neurrian, kontrolpean jarri, ez soilik bere lanaren produkzio baldintzak, baita hedapen baldintzak ere (Bourdieu, 1997c: 94-95, 115).

Honelako proposamenek, ordea, mundu intelektualaren funtzio politikoari buruzko, bai eta intelektualei eta kultur industriei buruzko galdera gehiegi uzten dute zabalik. Badakigu, intelektualak, maila indibidualean hartuta, Said-ek dioen moduan, bakardadearen eta lerrokapenaren arteko etengabeko oreka mantendu beharra duela berez (Said, 1996: 39). Zentzu honetan, estrategia pertsonalen bidean, lerro nagusi bi zabaltzen zaizkio intelektual den (izan nahi duen) orori: mutur batean, produkzio kulturalaren oihartzun murrizteko isolamendua, bestean, kultur lanaren kalterako izango den oihartzun handiko mezu hedapena gizarteetan, honek dituen ordain politiko eta mediatikoekin. Bi muturren artean, arloan dituen kokapen eta interesen araberako muga objektiboak aurkituko ditu intelektual honek; hortik abiatuta, automugaketa maila desberdinekin jokatu beharko du, audientzia handia edo txikia, arlo publikoarekiko irekiera eta itxiera kontzientea, hedabideekiko integrazio handiagoa edo txikiagoa inplikatzan duten aukera desberdinekin, alegia.

Etorkizunari begira norbanakoak gara ditzakeen jokabide estrategikoetatik haratago joatea, ordea, ariketa konplikatuagoa bihurtzen da, asmo eta preskripzio hutsak gainditu gura direnean behintzat. Zentzu honetan, bistakoa da lan intelektualaren garapenaren nondik norakoa gizarte mailan burutu daitezkeen zenbait prozesu orokorren menpe dagoela. Gaur egun ezagutzaren produkzioak eta produkzio horretan inplikaturik dauden instituzioek —unibertsitateak etab.— industria eta politikarekiko duten menpekotasun gero eta handiagoa, merkatu mediatikoaren kontzentrazioa, esparru publiko mediatikoaren itxiera progresiboa eta sistema politiko demokratikoen hertsadurak, ez dira prozesu horien artean hutsalenak, pentsamendu erlatiboki autonomo eta ez instrumentalaren posibilitateak errotik murrizten baitituzte guztiek. Besteak beste, prozesuok direla bide, estatu, enpresa, masa-hedabide eta beste burokrazia batzuentzako sortutako ezagutza produkzioa eta lanbide intelektualak ugaldtu egin dira, dudarik gabe, azken mendean zehar.

Hala ere, norabide desberdina duten joerak ere antzeman daitezke azkenaldi honetan, lan intelektualari ikuspegi eraberritua eman diezaioketenak eta zuzenean publiko edo audientzia “ilustratu” zabalagoaren eraketa ahalmenarekin eta espazio publiko autonomoen sorrerarekin zerikusia dutenak. Honela, ezagutza sinbolikoak produzitzea eta banatzea lanbidetzat duten klase ertain berrien hazkundea somatzen dute autore batzuek gizarte modernoetako klase egiturari (Berger, 1991: 72, 84). Kapital kultural handia eta formakuntza maila jaso duten sektore hauek, minoritarioak oraindino baina sozialki pisu esanguratsua dutenak, partizipazio sozialaren formula berrien bilaketan ere aktiboak bilakatu dira zenbaitetan, hala nola gizarte mugimenduen eraketan eta espazio politiko-publiko alternatiboen sorreran (Offe, 1988, Inglehart, 1991). Jakina, espazio publiko horiek, komunikazio espazio izanda ere, ez dute espazio publiko mediatikoaren sendotasuna eta indarra, baina zeharka izan dezakete harengan eragina baita arlo politikoan ere. Esparru publiko ofizial bakar baten aurrean, esparru publiko eta publikoen aniztasunaren existentzian jartzen du azentua J. Keane-k (Keane, 1984). Honenbestez, komunikazio esparru autonomoen eraketak espazio berriak zabal diezazkieke lan intelektualari, intelektualen eraginari eta pentsamenduaren eta ezagutzaren produkzioari (Eyerman, 1994). Izan ere, pentsamenduaren merkatu monopolistaren aurrean kultur ekoizleentzako gune publiko eta merkatu —txiki— berriak zabaltzea ere ez da, ez, erronka makala.

Bibliografia

- Accardo, A. *et al.* (1998): *Journalistes Précaires*, Le Mascaret, Bordele.
- Aranberri, L. A. (1997): *Intelektualak, Telebista eta Multimedia*, Arabako Foru Aldundia, Gasteiz.
- Ariño, A. (1997): *Sociología de la Cultura. La Constitución Simbólica de la Sociedad*, Ariel, Bartzelona.
- Aron, R. (1979): *El Opio de los Intelectuales*, Siglo Veinte, Buenos Aires.
- Béjar, H. (2000): *El Corazón de la República*, Paidós, Bartzelona.
- Berger, P.L. (1991): *La Revolución Capitalista. Cincuenta Proposiciones sobre la Prosperidad, la Igualdad y la Libertad*, Península, Bartzelona.
- Berrio, J. eta Saperas, E. (1993): *Els Intellectuals Avui*, Institut d'Estudis Catalans, Bartzelona.

- Bobillo de la Peña, F.J. (1999): *La realidad como Problema. Estudio sobre Intelectuales y Política*, Tecnos, Madrid.
- Bobbio, N. (1998): *La Duda y la Elección. Intelectuales y Poder en la Sociedad Contemporánea*, Paidós, Bartzelona.
- Bourdieu, P. (1975): "Campo Intelectual y Proyecto Creador" in Elkar Lanean: *Problemas del Estructuralismo*, Siglo XXI, Madrid, 135-182.
- , (1983): *Campo de Poder y Campo Intelectual*, Folios, Buenos Aires.
- , (1984): *Homo Academicus*, Minuit, Paris.
- , (1988): *Cosas Dichas*, Gedisa, Buenos Aires, Bartzelona.
- , eta Wacquant, L. (1992): *Réponses. Pour une Anthropologie Réflexive*, Seuil, Paris.
- , (1995): *Las Reglas del Arte. Génesis y Estructura del Campo Literario*, Anagrama, Bartzelona.
- , (1997a): *Les Usages Sociaux de la Science. Pour une Sociologie Clinique du Champ Scientifique*, INRA, Paris.
- , (1997b): *Razones Prácticas. Sobre la Teoría de la Acción*, Anagrama, Bartzelona.
- , (1997c): *Sobre la Televisión*, Anagrama, Bartzelona.
- , (1998): *La Distinción. Criterio y Bases Sociales del Gusto*, Taurus, Madrid, (1. arg.: 1988).
- , (1999): *Meditaciones Pascalianas*, Anagrama, Bartzelona.
- , (2000): *Cuestiones de Sociología*, Istmo, Madrid, (1. arg.: 1980).
- Bustamante, E. eta Zallo, R. (koord.) (1988): *Las Industrias Culturales en España. Grupos Multimedia y Transnacionales*, Akal, Madrid.
- Coser, L. A. (1968): *Hombres de Ideas*, F.C.E., México.
- Champagne, P. (1990): *Faire l'Opinion. Le Nouveau Jeu Politique*, Minuit, Paris.
- Debray, R. (1979): *Le Pouvoir Intellectuel en France*, Ramsay, Paris.
- Eco, U. (1975): *Apocalípticos e Integrados en la Cultura de Masas*, Lumen, Bartzelona.
- Eyerman, R. (1994): *Between Culture and Politics. Intellectuals in Modern Society*, Polity Press, Cambridge.
- Giner, S. (1979): *Sociedad Masa. Crítica del Pensamiento Conservador*, Península, Bartzelona.
- Habermas, J. (1981): *Historia y Crítica de la Opinión Pública*, Gustavo Gili, Bartzelona.
- Horkheimer, M. eta Adorno, T. W. (1994): *Dialéctica de la Ilustración. Fragmentos Filosóficos*, Trotta, Madrid.
- Inglehart, R. (1991): *El Cambio Cultural en las Sociedades Avanzadas*, CIS, Madrid.
- Imbert, G. eta Vidal Beneyto, J. (koord.) (1986): *EL PAIS o la Referencia Dominante*, Mitre, Bartzelona.
- Kadushin, Ch. (1987): "Los Intelectuales y el Poder Cultural" in Elkar Lanean: *Los Intelectuales en la Sociedad de la Información*, Anthropolos, Bartzelona.
- Keane, J. (1984): *Public Life and Late Capitalism*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Lamo de Espinosa, E. (1996): *Sociedades de Cultura, Sociedades de Ciencia. Ensayos sobre la Condición Moderna*, Nobel, Oviedo.
- Lipset, S.M. (1987): *El Hombre Político. Las Bases Sociales de la Política*, Tecnos, Madrid.
- Lopez Adan, E. (2001): "Intelektualak eta Politika", *Jakin* **122**, 55-67.
- Maldonado, T. (1998): *¿Qué es un Intelectual? Aventuras y Desventuras de un Rol*, Paidós, Bartzelona.
- Miranda, B. (1991): "Acerca de la Opinión Pública", *Herria 2000 Eliza* **118**, 22-25.
- Monzón, C. (1996): *Opinión Pública, Comunicación y Política. La Formación del Espacio Público*, Tecnos, Madrid.
- Offe, C. (1988): *Partidos Políticos y Nuevos Movimientos Sociales*, Sistema, Madrid.

- Oltra, B. (1978): *La Imaginación Ideológica. Una Sociología de los Intelectuales*, Vicens-Vives, Bartzelona.
- Ortega, F. eta Humanes, M.L. (2000): *Algo más que Periodistas. Sociología de una Profesión*, Ariel, Bartzelona.
- Price, V. (1994): *La Opinión Pública. Esfera Pública y Comunicación*, Paidós, Bartzelona.
- Rabotnikof, N. (1997): "El Espacio Público: Caracterizaciones Teóricas y Expectativas Políticas" in F. Quesada (arg.): *Filosofía Política I. Ideas Políticas y Movimientos Sociales*, Trotta, Madril.
- Said, E.W. (1996): *Representaciones del Intelectual*, Paidós, Bartzelona.
- Sartori, G. (1998): *Homo Videns. La Sociedad Teledirigida*, Taurus, Madril.
- Schlesinger, P. (1987): "En Busca de los Intelectuales" in Elkar Lanean: *Los Intelectuales en la Sociedad de la Información*, Anthropos, Bartzelona 11-57.
- Shils, E. (1977): "Intelectuales" in *Enciclopedia Internacional de las Ciencias Sociales*. Vol. VI. Aguilar, Bilbao, 136-149.
- Thompson, J.B. (1998): *Los Media y la Modernidad. Una Teoría de los Medios de Comunicación*, Paidós, Bartzelona.
- Uriarte, E. (1996): "Los Intelectuales y los Medios de Comunicación de Masas", *Zer* 1, 155-169.
- Zubiaga, M. (2001): "Intelektual Bertsolariaren Garaia", *Jakin* 122, 69-81.